



TXILLARDEGI

lana orain hasten

Bolara batez kalera agertu gabe egon ondoren, hona hemen berriro, eta baldinba luzarorako, abertzale askok horren gogokoduen PUNTO Y HORA hau; gure herriak berrogei urte luzez kanposantuetako bakea jasan ondoren, Aberriaren garrasia lehen-lehendabizikorik Iruñetik entzun erazi zuen astekaria. PUNTO Y HORA, beharrik, bizi-rik baitugu!

Jarraipidea ongi markaturik, horretara, artikulua idazpuru egin bide du bere gure astekariak; eta hauteskunde-ondo honetan bertan erabaki du lanean hastea. Bejondeizuela!

Eta izan ere, hala da: orain, hauteskundeak pasata hain zuzen, lanean HASTEKO mementoa etorri baitzaigu; eta ez, inolaz ere, lana uzteko edo laxatzeko ere garaia.

Lerro hauek idazten ditudan igande euritsu honetan, etzi zer gertatuko den ez dakigu. Baina, zer gerta ere (eta berri txarrik izango ez dugula sinetsita nago), lanari eusteko mementoa izango dela ez dut dudan jartzen.

Hots, ni, irakurleak ongi dakikeenez, 171.000 «txoriburu» horietakoa izanik, Herri Batasunaren eginkizunez mintzatuko naiz laburki.

Eta HB-ak ene ustez, Euskal Herria gure aldekoek nahi luketen bidetik zerbitzatuko badu, bi arrisku nagusi gainditu behar ditu orain.

Alde batetik, HB-ak **abertzale** jokatu behar du. Zinki, ermoki, osoki, batere beldurrik gabe: abertzale. Nola?

- a) **Hizkuntzaren arazoan:** Kolorerik gabeko «bilingüismo» (?) horiek alde batera utziz, **diglosiaren kontra** jokatu behar du HB-ak, deliberatuki, ausarki. Ez hitzez bakarrik, ez gero bakarrik. Ez HB-tik kanpora bakarrik. HB-a **euskaltzale sutsuen eskuetan** jarri behar da. HB-ari botoa eman dioteneak, euskaraz ez dakitelarik ere, Euskadi **euskalduna** nahi dute; eta helburu honi buruzko belaskeriak ez lituzkete barkatuko. **Euskararik gabe, Euskadirik ez.**
- b) **Nafarroaren arazoan** Abertzale garenok ez dugu ezertxo ere nahi Nafarroa gabe. Ez «Consejo Vascongadillo»rik, ez «mini-distrito vascongado»rik, ez horrelakorik ezer onartuko dugu. Nafarroako saltzaileak eta xurgatzaileak gainditurik gelditu arte, itxaron egingo dugu. **Euskadi Nafarroa da.**
- d) **Iparralearen arazoan:** Baiona eta Maule Euskadi dira; Enbata, Jazar, Ezker-Berri eta EHAS gure borroka berean ari dira; «Seaska» ikstola-elkartea eta Etxamendi-Larralde kantariak, gure anaia bizkiak dira. Muga dago artean, ongi dakigu. Baina ez dugu mugarririk geure bihotzetan jarriko. Beste talde batzuk beren praktikan eta beren barnemuinean Iparraldea ahantzi badute ere, HB-ak ez du utziko. Eta taktika-beharrak kontutan hartuagatik, ez du zapuztuko. Iparraldea bihotz-muinean dara-

man mogimendua, nekez lerra baitaiteke sozial-inperialismora. **La-purdi, Baxenabarre eta Zuberoa Euskadi dira.**

Eta beste alde batetik, HB-ak **be heitit gora** jokatu behar du; organizazioaren oinarritzat **autogestica** hartuz.

«Anarko» askok eman omen digu botoa; eta ez nuke nik ezetzik esango. Hiru urte honetan ikusi dena ikusita, leporaino dago jende asko eta asko «partidu» ez, «siglez» eta gizon «politiku» ez. Eta, egia esateko, ni neu ere ez nago urruti. HB-ari botoa eman dion jendeak **BESTELAKO TALDE BAT** eratuko den esperantzan eman du botoa. Ez dago zalantzarik.

Eta, hori dela-ta, beste hiru helburu hauek proposatuko nituzke:

- a) **HB beheitit gora** antolaturik egon dadila; eta ez inolaz ere goitik behera. Sekretari ahal guztidunei, ez; aparaterkeria guztiei, ez; «politika» zapatillatan egin nahi dutenei, ez; militanteen lepora bizi nahi duten lotsagalduei, ez. **Organizazioa behar da**, noski. Baina ahal den neurrian, ez daitezela postuak eta karguak luzaz pertsona berberen eskuetan egon; eta, nolana ere, ez dadila inor ikutu-ezina izan. HB-ak behar duen organizazioari, **beheitit gora** etorriko zaio indarra; ala kamarilla bat HB-siglaz nagusitu, eta horretan bukatuko da dena. HB-a «goitik», kontrolatu nahi izatea, tentazio faziztatan eta eskuindarretan erortzea litzateke. Ez gaude isilpean. Jokoa AGIRIAN, eta ARGI ETA GARBI. Agintea baseari, eta gaurdanik baseari. Gero berandu izango litzateke; eta mila zisma eta zaktikaren oinarri.
- b) **HB herriarekin eta herri-mailako organizazioetan** izan ditzala burua eta arreta; eta ez, eguneroko burrukan ohorerik gabe ari diren militanteei bizkarra emanez, «alta politica» eta «top-secret»eko konponketa satsu eta tratu likitsetan. Gure helburua eta tema **herria esnatzea** izan dadila, eta **herria zerbitzratzea**.
- d) **Honi oso lotuta, egia esan: ideologia gutxiago, eta pertsonagandik hurbilago.** HB-ak errespetu osoa eta egiazkoa izan behar du gudari isilekiko, sindikalista ezezagunekiko, andereño eta irakasle apalekiko. Ohorerik gabe ari diren abertzale hauekiko errespetuan funtsatzen baitira bai demokrazia eta bai sozialismoa. Eta ez dakit zein testu buruz ikastea.

Eta bide hauetan sinesten ez duten teknokrata ezkertarrak, goiko esfera famatu horietan bizi nahi dutenak, beren entzuterikeza hitzontzikeria hanpurusetan izkatatu nahi duten animal politiko horiekin guztiekin, zer egingo? Hona ene erantzuna, argi eta garbi: oraindik ez bagaituzte utzi, que se vayan, joan daitezela; eta bake santua izango dugu.

Hala biz.